



ERABAKIA, ELORRIO KIROL TALDEAK EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN APELAZIO BATZORDEAREN EBAZPENAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA BAIESTEN DUENA

Esp.-zk.: 10/2015

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Elorrio Kirol Taldeak Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordearen –hemendik aurrera EFFAB esango diogu– erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen (189343 zenbakiarekin erregistratuta dago) 2015eko otsailaren 16an.

BIGARRENA.- KJEB Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtso hori izapidetzea onartu zuen, eta alderdi errekurrituari jakinarazi zion hamabost laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotako froga-izapidetak proposatzeko.

HIRUGARRENA.- 2015eko martxoaren 31n erregistratutako idazki bidez, EFFABak errekerimendu hori bete zuen, espediente osoa atxikita.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- 14/1998 Legearen 138 b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua araberak, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtso hau aztertze eskumena.

BIGARRENA.- Epaitzen ari garen errekurtsoaren abiapuntua Bizkaiko Futbol Federakundeko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak otsailaren 3an



hartutako erabakia da; erabaki horren bitartez, Elorrio Kirol Taldeari 300 €-ko isuna jarri zitzaion eta partida 3-0 emaitza teknikoarekin amaitutzat jo zen, zelaiko 7 jokalaria baino gutxiagorekin agertuko zelako partida jokatzera (Diziplina Araudiaren 48. artikulua eta Araudi Orokorraren 91. artikulua).

Aktan honela jasota dago han gertatutakoa: “PAULDARRAK eta ELORRIO taldeek 12:45ean jokatu behar zuten partida bertan behera geratu da, kanpoko taldeak –ELORRIOk– bi jokalaria baino ez dituelako aurkeztu; gainerakoak ondoezik omen daude. Hori dela-eta, partida hasi baino lehen bertan behera geratu da (...)”.

Errekurtsoa aurkeztu zuten, baina EFFABak ezetsi egin zuen otsailaren 16an.

HIRUGARRENA.- Lehenik, errekurtsuaren xedea zein den zehaztuko dugu, errekurtsogileak honela aurkeztu baitu zer lortu nahi duen: “(...) Araudi Orokorraren 91.4 artikulua eta Diziplina Araudiaren 50.2 artikulua aintzat hartuta, kirol-arloko zigorra onartzen dugu (...) baina 300 €-ko zigor ekonomikoa kentzea eskatzen dugu”.

Beraz, errekurtsuaren xedea zehaztu dugunez, kontua orain zera da, ezarritako 300 €-ko isun horretaz libratu edo salbuesteko eskaera bidezkoa ote den erabakitzea.

Errekurtsogileak honako arrazoi hauek alegatu ditu aurkaratzeko:

1.- Jokalari guztiak lehen urteko haur-kategoriakoak dira: taldean 5 kadete eta 9 gazte daude, hau da, guztira 14 lizentzia;



2.- Entrenatzaileak eta ordezkariek, jokalarien legezko tutoreen ahozko mandatari diren aldetik, epaileari jakinarazi zioten ez zutela behar adina jokalaria, asko gaixorik zeudelako, eta ezinbesteko kasua zela zioten;

3.- Aktan “ondoezik daudela” jartzen du, eta errekurtsogileen ustez, esaldi hori ezinbesteko kasuen barnean sar daiteke; beraz, horregatik ez zuten akta aurkaratu;

4.- Egia da egoera horren berri –gaixotasuna– talde aurkariari eta federazioari jakinarazi behar zitzaiola behar besteko aurrerapenarekin, partida beste egun batera aldatu ahal izateko;

5.- Ez da engainatzeko borondaterik izan, ezta zabarkeria nabarmenenik ere; eta,

6.- 8 jokalaria ondoezik daudela justifikatzen duten mediku-ziurtagiriak aurkeztu ditu.

Bestalde, EFFABak azalpen bakarra eman du: “(...) ELORRIO taldeak ez du alegaziorik aurkeztu Batzorde honetan aktaren edukiari dagokionez”.

LAUGARRENA.- Adierazi dugunez, zigorra Diziiplina Araudiaren 48. artikuluan eta Araudi Orokorraren 91. artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarri zen; hurrenez hurren, honako hau xedatzen dute:

-Diziiplina-araubidea: “48. art.1 b) Puntu bidezko txapelketa bada, arauhausleari partida galdutzat emango zaio, eta aurkaria irabazletzat hartuko da, hiru eta hutseko emaitzarekin (...) 3. Edozein kasutan, edozein motatako ez agertzeak, araua hausten duen taldeari, 300 €-tik 1.200 €-ra bitarteko isuna ekarriko dio eta ez agertua bisitaria balitz, 47. artikulua 2. paragrafoko 1.



puntuak xedatzen duen moduan, aurkariari ordaindu beharko lioke. 4. Artikulu honetan ohartarazitako ondorioetarako, ez-agertzea honako hau izango da: egutegi ofizialak adierazitako edo organo aginpidedunak jarritako datan kirol konpromiso batera ez joatea, bai asmo maltzurrez bai arduragabekeria nabarmenez; baita halaber ere, taldea agertu eta partida jokatu arren, izaera orokor edo bereziz araudi bidez ezarritako baldintza eta betekizunak biltzen dituzten jokalarien kopurua askieza izatea. Azken kasu hori dagokionez, ezin aurreikus zitekeen edo aurreikusita ere ezin saihest zitekeen zioen bat egotea salbuespen izango da; ez da horrelakotzat joko dagokion klubari lepora dakioken eta berehalako ondorio gisa horretara derrigortuta dauden futbolariak parte ez hartzea dakarren gertakariren bat tartean izatea, jokalaria horiei legokiekeen erantzukizunaren kalterik gabe”.

-Audi Orokorra “91. art. 4. Partida has dadin, talde bakoitzak, gutxienez, mailako eta taldeko zazpi jokalaria eduki beharko lituzke. Jokalaria kopurua txikiagoa bada, epaileak partida eten egingo du, eta hala jokatzen duen kluba bertaratu ez dela ulertuko da, ezinbesteko arrazoirik egon ezean” .

Aurreko hori guztia epaitzen ari garen kasura ekarrita, kontua zera da, bai epaile-aktan jasotako kausa (dioenez “gainerakoak ondoezik daude”), bai 8 jokalaria kirol-ekitaldira agertzea eragozten zuten osasun-arazoak egiaztatzen dituzten mediku-ziurtagirien aurkezpena nahikoa kausa ote diren erabakitzea, errekurtsogilearen isuna kentzeko eskaera hori justifikatzeko.

Gaia horrela proposatuz gero, erantzunak baiezkoa izan behar du. Ezinbesteko kausa gertatu da, eta ezin dugu esan errekurtsoa aurkeztu duen taldearen jardunak asmo maltzurra izan zuenik edo arduragabekeria nabarmenez jokatu duenik; beraz, “ez-agertzea” teknikoki eratzen duten oinarrizko hipotesiak ez dira betetzen.



Horretaz gain, Batzorde honek erabaki hori hartu izan du honen antzeko kasuetan; adibidez, 2015eko apirilaren 13an TRINTXERPERen kasuan emandako ebazpenean –6/2015 esp.– honako arrazoi hauek eman genituen: “Eta, hori guztia, jardun horren ondorioak gertatutako zirkunstantzien arabera aztertu behar direlako; eta zirkunstantzia horiek honako hauek dira: partidaren egotea eragozten zuten faktore objektiboak –gaixotasunak eta bidaia– izan bazirela eta horiek bidezko kausatzat hartzen direla ez agertzeko; eta, horren ondorioz, taldea erantzukizunaz salbuesteko.”

Baina, dena den, errekurtsogilearen nahia erabakigarria eta argia da, aurkaratutako erabakia berrikusteko prozesua mugatu egiten baitu zigor ekonomikoaz libratzeko proposamenaren bidez, partida galdutzat emateko erabakia ontzat ematen duelako. Horregatik, gure erabakia errekurtsogileak nahi duen horri buruzkoa da.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBak honako hau

ERABAKI DU:

Elorrio Kirol Taldeak Euskadiko Futbol Federakundearen Apelazio Batzordearen erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsoa baiestea, eta 300 €-ko zigor ekonomikoa kentzea baina gainerakoan zigorrari eustea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe



xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren
13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzak 11

José Ramón Mejías Vicandi
KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA